

BISITA
TEKNIKOAK

Gsef

BILBAO2018

GLOBAL SOCIAL
ECONOMY FORUM

Gizarte-ekonomia eta hiriak
**Tokiko garapen
inklusiborako eta
iraunkorrerako
balioak eta
lehiakortasuna**

**Bisita
teknikoak**

ANTOLATZAILEA

Bilbao

BABESLEAK



Bilbao

www.gsef2018.org



URRIA 3, Asteazkena

14.30-18.30 BISITA TEKNIKOAK

Gizarte-ekonomiako enpresa/ jardueren adibide espezifikoak ikusteko aukera emango duten ibilbide teknikoek arabera antolatuta dira bisita teknikoetan. Bisita hauen **hizkuntza INGELESA** izango da.


1. Gizarte-ekimeneko eta komunitateko ibilbidea (2 ordu). Prezioa: 10 €.
2. Kontsumitzaileen ibilbidea (2 ordu). Prezioa: 10 €.
3. Ingurumen-ibilbidea (3 ordu). Prezioa: 10 €.
4. Ibilbide finantzarioa (2 ordu). Prezioa: 10 €.
5. Ibilbide industriala 1 (3 ordu). Prezioa: 10 €.
6. Ibilbide industriala 2 (3 ordu). Prezioa: 10 €.
7. Ekimen publikoa txertatzeko ibilbidea (3 ordu). Prezioa: 10 €.
8. Gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbidea (2 ordu). Prezioa: 10 €.
9. Adinekoentzako laguntza- eta zaintza-ibilbidea (2 ordu). Prezioa: 10 €.
10. BBF - Bilbao Berrikuntza Faktoriara bisita, Mondragon Unibertsitateak sustatutako Gizarte Ekintzaitzako Gunera (2 ordu). Prezioa: 10 €.
11. MONDRAGON esperientzia (5 ordu). Prezioa: 15 €. Arrasateko bisita 4 ibilbideren inguruan egituratuko da, eta MONDRAGON Korporazioaren lankidetzat izango du. Bisita egun hauetan egin ahal izango da: **urriaren 3an, asteazken** arratsaldean (irteera 14:00an eta itzulera 19:30etan); eta **urriaren 4an, ostegun** goizean (irteera, Bilbotik, 8:30ean eta itzulera 14:00etan) eta arratsaldean (irteera, Bilbotik, 13:30ean eta itzulera 19:00etan).


Izena ematen dutenentzat, Foroaren antolakuntzak hara joateko bitartekoak eta ibilbide bakoitzaren programa zehatza jarriko ditu interesdunen eskura. Ibilbide bakoitzeko 30 pertsonak parte hartu ahal izango dute, BBFn salbu, bertan 60-70 pertsonak parte hartu ahal izango baitute. MONDRAGON esperientzian ere honako 3 txanda hauek programatu dira: bat urriaren 3ko arratsalderako eta bi urriaren 4rako, goizerako eta arratsalderako. Bertan 90 pertsonak parte hartu ahal izango dute, txanda bakoitzean.


Inskripzioa egitea ahal izateko, jarrai ezazu helbide hau: <https://www.gsef2018.org/eu/izen-ematea/>

Oharra: bisita teknikorako inskripzioa aurreko inskripzio orokorrari lotuta dago.


Gizarte-ekimeneko eta komunitateko ibilbidea

AGINTZARI	
Madariaga etorbidea 1, 4 - 48014 Bilbo	
www.agintzari.com	
Lan Kooperatiba; Gizarteratze Enpresa; Ekonomia Solidarioa	
<p>AGINTZARI enpresa soziala da, komunitatearen garapenaren aldeko konpromisoa duena. Esku-hartze sozialaren eremuan jarduten du, proposamen berritzaileak abiaraziz eta kalitatezko zerbitzuak kudeatuz, arazoak dituzten pertsonen eta taldeen premia sozialak gaituzten laguntzeko asmoz.</p> <p>Enpresaren proiektu kooperatiboak pertsonak ditu ardatz; izan ere, antolaketa honako hauetan dago oinarrituta: autokudeaketan, parte-hartzean, esperientzian eta bikaintasuna lortu nahi duten pertsonen arteko lidergo partekatuan, enpresaren prestazioen hartzailerentzat pertsonen, erakunde bezero eta lankideen eta tokian tokiko komunitatearen etengabeko gogobetetzearen bitartez.</p> <p>Kooperatibak gizarte- eta hezkuntza-arloko zerbitzuak, zerbitzu psikosozialak eta aholkularitza- eta prestakuntza-zerbitzuak kudeatzen ditu haurren eta familien esparruetan. Zerbitzu horien kudeaketa hiru jardueren-lerrotan dago antolatuta. Hona hemen: esku-hartze komunitarioa; harrera eta adopzioa; indarkeria-kasuen eta harreman-gatazken arloko esku-hartzeak.</p>	

BIDEGINTZA	
Atxuri 45 - 48006 Bilbo	
bidegintza.org	
Lan Kooperatiba; Gizarteratze Enpresa; Ekonomia Solidarioa	
<p>BIDEGINTZAK Bilboko 5. barrutiko herritarren garapen pertsonala eta komunitarioa sustatzen du, betiere norbanakoaren zein komunitatearen kontzientziarioan, partaidetzan eta protagonismoan oinarritutako lan komunitarioaren ikuspegia ardatz hartuta.</p> <p>Horretarako, BIDEGINTZAK hau guztia egiten du: familiei laguntza-, orientazio- eta aholkularitza-arloetako heziketa-baliabideak eskaini; gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden adingabeen gutxieneko beharrianak aseko direla bermatzeko lan egin; gizarte-bazterketako egoeran dauden adingabeen eta gazteen garapen integrarean lagundu, haiekin eta haien familiekin antolatzen diren taldeko eta banakako prozesuen bitartez; eta gizarte-babesgabetasuneko egoeran dauden kolektiboetako guneak eta arreta esanguratsua eskaini.</p> <p>Batik bat, BIDEGINTZAK arretako, laguntza integrareko eta gizartean zein hezkuntza-arloan esku hartzeko zerbitzuak eskaintzen dizkie adingabeei, gazteei eta haien familiei. Gaur egun, zenbait gizarte-, hezkuntza- eta komunitate-programa ditu abian, haurren eta gazteen babesgabetasun-arriskuko egoerei aurrea hartzeko.</p>	

<p>COLABORABORA (Wikitoki ekimena)</p>	 <p>Elkarsorkuntzarako Laborategia Laboratorio de prácticas colaborativas</p>
<p>Cantera plaza 5, 2 - 48003 Bilbo</p>	
<p>www.colaborabora.org wikitoki.org</p>	
<p>Lan Kooperatiba; Ekonomia Solidarioa</p>	
<p>ColaBoraBora gizarte-berrikuntzaren eta kultura-jardueren arloko kooperatiba da. Bere helburua harreman-, antolakuntza-, produkzio- eta kontsumo-modu berriak garatzea da, honako hauek oinarri hartuta: prokomuna, ezagutza eta kultura librea, iturburu irekia, elkarlaneko praktikak, feminismoa, permakultura, komunitatearen garapena edo gizarte-ekintzailtza, sare banatuen eta P2P harremanen ikuspegitik. Besteak beste, galdera hauei erantzuten saiatzen dira: Nola eskatu pareen arteko gobernu bat eta nola izan geure burua kudeatzeko gai? Nola prestatu elkarlanean ekoizteko eta balio komuna sortzeko? Nola bizi gaitezke elkarrekin komunitate berean modu iraunkorrean eta erantzunkidetasunez? Galdera horiek ikertzen jarraitzea bultzatzen dituzte ColaBoraBorako kideak, oraindik ez baitute erantzunik aurkitu. Wikitoki ekimenean parte hartu eta sustatu egiten du.</p> <p>Praktika-, hausnarketa- eta ekintza-komunitatea da, eta etengabeko prestakuntza, ikerketa, ideiak, prototipogintza, elkarsorkuntza eta elkarlaneko jarduerak sustatzen ditu. PRODUKZIOOrako (sorkuntza, lana, aktibismoa, ikerketa), ERREPRODUKZIOOrako (soziala, harremanei lotua) eta DIBULGAZIOOrako (prestakuntza, erakusketa) gunea da. Beste espazio, ekimen eta programa batzuek osatutako sare baten barruan, dimentsio fisikoa eta digitala uztartzen dituen topagunea.</p> <p>Wikitokiren jardueren ardatza gizartean, ekonomian, hirian, kulturen, politikan eta abarretan eragina izango duten proposamenak garatzea da; jakintzagaiak gurutzatuz, elkarsorkuntza-dinamikak bultzatuz eta herritarren eta erakundeen partaidetza aktiboaren bidez. Wikitokik proiektuak diseinatu eta garatzen ditu, eta tailerrak, mintegiak, kongresuak eta askotariko prestakuntza- eta dibulgazio-ekintzak antolatzen ditu; topaketak sustatu, dinamikak antolatu eta sinergiak ahalbidetzen ditu; sortzen diren ekimenean parte hartzen du; ikertu eta argitaratu egiten du...</p>	

Kontsumitzaileen ibilbidea


EROSKI	
Tellagorri 8 – 49012 Bilbo	
www.eroski.es www.eroski.es/fundacion-eroski	

Lan Kooperatiba; Kontsumitzaile Kooperatiba; Fundazioa

EROSKI banaketa-enpresa bat da, besteek ez bezalako enpresa-eredua duena: kontsumitzaileek eta langileek osatutako eredu kooperatiboa. EROSKIk erosketa-espereientzia atsegingarria eskaini nahi du bere denda eroso eta modernoetan, eta enplegu iraunkorra eta kalitatezkoa sortu.

Formatu anitzeko enpresa da. Elikagaiak saltzen hasi zen. Handik gutxira, ordea, arropa, oinetakoak, etxetresna elektrikoak, bidaiak, kirol-gaiak, perfumeria, optika, erregaiak, aseguruak, telefono mugikorak eta abar ere saltzeari ekin zion.


Korporazio-balantze hirukoitzean sinesten du. Enpresa-erantzukizunak bateratu egin behar ditu hazkundera eta balio-sorkuntza, eta gizarte-garapena bideratzen lagundu behar du dendak ezartzen dituen tokietan, betiere ingurumenean ahalik eta eraginik txikiena izanez. Sortu zenez gerotik, irabazien % 10 itzuli dio gizarteari, kontsumitzaileentzat eta komunitate osoarentzat baliagarriak diren ekimenen bidez. Jarduera hori, neurri handi batean, EROSKI Fundazioaren bidez garatzen da.

GOIENER	
Esperanza 12 – 48005 Bilbo	
www.goiener.com	

Kontsumitzaile Kooperatiba; Ekonomia Solidarioa

Goiener energia berriztagarriaren sorkuntza- eta kontsumo-proiektu kooperatiboa da, energiaren subiranotasuna berreskuratu nahi duena.

Goinerrek energia-subiranotasuna berreskuratu nahi du herritarrentzat. Irabazi-asmorik gabeko kooperatiba denez, bazkideei elektrizitatea (berdea) salduz lortzen diren irabazi guztiak kooperatibara itzultzen dira, eta bazkideek beraiek batzar batean erabakitzen dute irabaziak nola erabili. Orobat, bazkideek sorkuntza berriztagarriko proiektuetan inberti dezakete; proiektu horietan lortutako produkzioa kooperatibak berak kontsumitzen du. Azken helburua da kooperatibak sortzen duen energia-kantitatea bazkideek kontsumitzen duten energia-kantitatearen baliokidea izatea. Eta hori guztia energia-iturri berriztagarriak erabiliz eta ahalik eta kontsumorik arrazional eta eraginkorra lortuz.

LABORE	
Haro enparantza – 48006 Bilbo	
laborebilbo.eus	

Ekonomia Solidarioa


LABORE denda-itxurako kontsumo-elkartea da, produktu osasungarriak arrazoizko prezioetan salerosteko sortua.


Irabazi-asmorik gabeko elkartea da, ardatz gisa honako balio hauek hartzen dituena:


- **Kontsumitzaileok** kalitatezko produktuak izango ditugu eskura, eta merke gainera.
- **Nekazariek** bidezko prezioa jasoko dute euren produktuen truke.

- LABOREko **langileek** baldintza duinetan egingo dute euren lana.

Ingurumen-ibilbidea

ONODAN	
Parke Teknologikoa, 101-C eraikina – 48170 Zamudio	
www.ondoan.com	
Lan Kooperatiba	
<p>la 35 urteko historian, ONDOAN orekaz eta etengabe hazi da, eta zerbitzu, prozesu eta sistema berriak txertatu ditu, betiere kalitatea, etengabeko hobekuntza eta berrikuntza gogoan izanda. Hiru hamarkadatik gorako ibilbide horretan, etengabeko ahalegina egin du bere sektorean (instalazioen ingeniaritzan, ingurumenean eta mantentze-lanetan) lidergo-posizioak lortzeko.</p> <p>Beraien ustez, hori guztia balioak lehenesten dituen enpresa-eredu baten emaitza da; alegia, bezeroaren zerbitzuan, talde-espirituan, kalitatean, konpromisoan eta ekimenean oinarritutako ereduaren emaitza. Gainera, kode etiko zorrotz bati jarraitzen diote lan guztietan, parte hartzen duten alderdi guztiak ahalik eta errespeturik handienaz tratatuz. Azken batean, balio horiei guztiei esker, ONDOAN erreferentzia bihurtu da bere merkatuan, aintzat hartzen den enpresa izanik.</p>	


AGRUPA LABORATORIO	
Arteaga auzoa 43T - 48160, Derio	
www.agrupalab.com	
Lan Sozietatea	
<p>AGRUPA LABORATORIO, analisiak eta saiakuntzak egiten dituen lan-sozietatea, erreferentziazko enpresa da ingurumenaren arloan, bai langileen kualifikazio teknikoari dagokionez, bai erabiltzen dituen baliabide materialei eta laborategiko baliabideei dagokienez.</p> <p>Premiazko baliabide baten (uraren) tratamenduan, kontrolean, zaintzan eta kudeaketan dago espezializatuta, baita hondakinen eta lurzoruen kudeaketa egokian ere. Horren guztiaren ondorioz, enpresak, produkturik bikainena eman ahal izateko, baliabide teknikoak eta giza baliabideak optimizatzen lan handia egin du.</p>	



BERZIKLATU	
Orkonera auzoa - 48530 Ortuella	
www.berziklatu.eus	
Gizareratze Enpresa; Ekonomia Solidarioa	
<p>Ekimen aitzindaria izan da Europan, lehen aldiz sektore publikoa eta gizarte-helburuak dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeak proiektu komun berean uztartu baititu. Proiektuak bi xede ditu: hiri-hondakinen kudeaketa integrala burutzeko, batetik, eta gizarte-bazterketako egoeran dauden edo egon daitezkeen pertsonak gizareratzea eta laneratzea, bestetik.</p> <p>Bizkaiko Foru Aldundiak diseinatu zuen Berziklatu proiektua, Bizkaian sortutako hondakin handien tratamendu integralerako eta, aldi berean, gizareratze-enplegua sortzeko. 2007an jarri zen abian. Sozietateko kideak Bizkaiko Foru Aldundia, Garbiker, Rezikleta eta Emaus dira.</p>	

2005-2016 aldirako Bizkaiko Hiri Hondakinak Kudeatzeko II. Plan Integralaren baitan dago. Planaren helburua da lehen mailako hondakin bat bera ere ez isurtzea. Horretarako, hondakinetan dauden materialen berrerabilera eta birziklapena maximizatzea da bidea.

Finantza-ibilbidea


<p>LABORAL KUTXA</p>	
<p>Kale Nagusia 2 – 48001 Bilbo</p>	
<p>corporativa.laboralkutxa.com www.laboralkutxa.com</p>	
<p>Kreditu Kooperatiba; Lan Kooperatiba</p>	
<p>LABORAL Kutxa banka egiteko beste modu bat da, gure gizartearekiko lankidetzan eta konpromisoan oinarritua. Bezero bakoitzaren gogobetetasuna lortzea eta gure inguruan aberastasuna eta enplegua sortzea da gure helburu nagusia.</p> <p>Banku kooperatiboa gara, eta, gure balioak eta filosofia oinarri hartuta, denon interesari ematen diogu lehentasuna, gizabanakoaren interesaren aurretik. Erabakiak modu parte-hartzailean eta arduraz hartzen ditugu, eta gure irabaziak gizarteari itzultzen dizkiogu.</p> <p>Gure izateko eta jarduteko modua bat dator gure jarduerari buruz dugun ikuspegi sozialarekin, eta, beraz, beste modu batean pentsatzen eta jarduten dugu.</p>	
<p>ELKARGI SGR - OINARRI</p>	 <p>Tu aliado financiero. Zeure alboan.</p>
<p>Plaza Biribila 4 – 48001 Bilbo</p>	
<p>www.elkargi.es/oinarri-economia-social</p>	
<p>Berme Elkarte; Gizarte Ekonomia</p>	
<p>Elkargi SGR Euskadiko elkarrekiko berme-baltzua da. Gizarte Ekonomiako enpresetan espezializatutako sail bat du, OINARRI izenekoa. Bere jarduerak bi jarduketa-arlo ditu ardatz:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Enpresei finantzaketa egokia ematea. • Enpresen finantza-kudeaketa hobetzea. <p>Enpresei behar dituzten abalak ematen dizkie: finantza-abalak eta abal teknikoak. OINARRIren abalarekin, enpresek, baita txikienek ere, euren inbertsioak finantzatzen dituzte merkatuko baldintzarik onenetan.</p>	
<p>FIARE</p>	
<p>Santa Maria 5 – 48005 Bilbo</p>	
<p>www.fiarebancaetica.coop</p>	
<p>Kreditu Kooperatiba; Ekonomia Solidarioa</p>	
<p>Herritar antolatuen esku dagoen bankua da FIARE, akzioen bidezko sozietate kooperatiboa. Gaur egun, Italian eta Espainian jarduten du, eta lankidetzan eta elkartasuna sustatzea du helburu. Estatutuak, legearekin bat etortzeaz gain, Fiare Banca Ética sortze-aktaren xehetasun bereizgarriari lotutako ezaugarri batzuk ditu.</p> <p>Bazkideek parte-hartze zabala eta handia dute bankuaren kapitalean, eta Batzarraren erabakitze-prozesu demokratikoek antolaketa-egitura original bat sortzen lagundu dute, egitura asoziatiboaren eta egitura operatiboaren arteko uztarketaren bidez.</p>	

KOOP57	
www.coop57.coop/es/euskadi	
Kreditu Kooperatiba; Ekonomia Solidarioa	
<p>Koop57 finantza-zerbitzu etikoak eta solidarioak eskaintzen dituen kooperatiba bat da. Kooperatibaren helburu nagusia da gure ekonomian eta gizartean eraldaketa soziala gauzatzen laguntzea.</p> <p>Bestalde, ekonomia sozialeko eta solidarioko proiektuak finantza-bitartekaritzaren bidez finantzatzea da bere funtzio nagusia. Horretarako, gizarte zibilaren aurrezkiak erakarri eta biltzen ditu, ekonomia sozialeko eta solidarioko erakundeak finantzatzeko, enplegua, kooperatibismoa, asoziazionismoa eta oro har elkartasuna susta ditzaten, baita iraunkortasuna ere, printzipio etikoetan eta solidarioetan oinarrituz.</p>	

LANPAR	 
asle.es/Fondo Lanpar	
Finantza Tresna, Lan Sozietatea	
<p>LANPAR Arrisku Kapitalerako Funtsak langileek euren enpresen kapitalean parte har dezaten sustatzea du helburu. LANPARrek bestelako enpresa-eredu bat sustatu nahi du; hain zuzen, enpresetan lan egiten duten pertsonen haitetako arlo guztietan parte hartzea bideratzen duen eta erantzunkidetasun-kultura sortzen duen eredu.</p> <p>ASLEk eta SPRI Taldeko SGEIC SAK (Euskadiko Arrisku Kapitalaren Kudeaketa) kudeatzen dute LANPAR. Bere ekarpenaren bidez, sortu zenetik gizartearekin duen konpromisoa sendotu nahi du ASLEk, eta enpresa egiteko beste modu bat bultzatu, kapitalak eta lanak bateratzen eta proiektu partekatua gauzatzen laguntzeko.</p>	


Industria-ibilbidea 1

FAGOR ARRASATE	 FAGOR FAGOR ARRASATE
Ugaldeguren II industrialdea– 9-IV partzela – 48170 Zamudio	
www.fagorarrasate.com	
Lan Kooperatiba	
<p>FAGOR ARRASATE mundu-mailako espezialista da deformazio bidezko makina-erremintak diseinatzeko, fabrikatzeko eta hornitzeko: prentsak eta estanpazio-sistema osoak; xafla metalikoa fabrikatzeko, prozesatzeko eta ebakitzeko lerroak; xaflazko pieza konplexuak egiteko lerro oso bereziak; etab.</p> <p>Sei fabrika ditu munduan; horri esker, merkatu guztietan dago, eta erreferentziak ditu hirurogeita hamar herrialdeetan.</p> <p>1957an sortua, lidergo-aitzindaria da gaur egun, instalatutako linea-kopuruari, erreferentzien ospeari, teknologiari, kalitateari, eta ikerketa eta garapenari dagokienez. Munduan automobilak, pieza estanpatuak, altzairuzko edo aluminiozko bobinak eta formatuak, etxetresna elektrikoak, metalezko altzariak, pieza forjatuak edo ijezlan elektrikoak egiten dituzten ia fabrikatzaile handi guztiek FAGORren instalazioak erabiltzen dituzte.</p> <p>Mundu osoan, Fagor Arrasate da xafla metalikoa lantzeko diseinatutako produktuen sortarik zabalena duen enpresa. Horrek aukera ematen dio irtenbiderik aurreratuenak, koordinatuenak, eraginkorrenak eta lehiakorrenak uztartzeko eta proposatzeko.</p>	

FMD CARBIDE	
Gudarien Hiribidea 18 - 48970 Basauri	
www.fmd-hm.com	
Lan Sozietatea	
<p>FMD CARBIDEk 60 urte baino gehiago daramatza metal gogorra sinterizatzen. Metal gogorreko produktu bereziak egiten ditu gehienbat, ebaketa-, deformazio- eta higadura-erreminta eta tresna orotarako. Jarduera-esparru nagusia Europako merkatua du. Sare komertziala eta ordezkariak ditu Europako eta Hego Amerikako zenbait herrialdeetan, eta, horri esker, bere produktuak 15 herrialdeetara baino gehiagotara heltzen dira.</p> <p>Gaur egun, espezializazioaren aldeko apustuaren eta nazioarteko bokazioaren ondorioz, enpresa estrategikoa da estatuko zein nazioarteko industria-ehunean.</p> <p>Kapital sozialaren % 60 baino gehiago langileen esku dago. Gainera, sozietate-kontratu izeneko dokumentu bat sinatu dute, sozietate-txandaketa ahalbidetzeko eta enpresa-proiektuari denboran irauten laguntzeko.</p>	

LANTEGI BATUAK FUNDAZIOA	
www.lantegi.com	
Enplegurako Zentro Berezia	
<p>Lantegi Batuak irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta enplegu-aukera egokiak sortzen ditu ezgaitasunak dituzten pertsonentzat (batez ere, ezgaitasun intelektuala duten Bizkaiko biztanleentzat), ahalik eta garapenik eta bizi-kalitaterik handienak lor ditzaten.</p> <p>Bizkaian ezgaitasunaren arloko enpresa-ekimenik handiena da. Gaur egun, ezgaitasun intelektuala, fisikoa, zentzumenekoa eta buru-nahastea duten 2.500 pertsonarentzat baino gehiagorentzat sortzen ditu lan-aukerak, industria- eta zerbitzu-jardueren bidez. 21 lantoki ditu, 30.000 metro karratu baino gehiago guztira, eta horiei Bizkaia osoan zerbitzuak eskaintzen dituzten 9 taldeak gehitu behar zaizkie.</p> <p>Ekimen iraunkorrak eta lehiakorrak sortu eta kudeatzen ditu, eta ezgaitasuna duten pertsonen enplegarritasuna sustatzen du. Horretarako, hainbat gizarteratze- eta laneratze-ibilbide eskaintzen dizkie, enplegu normalizatua lortzen laguntzeko: orientazioa eta prestakuntza, programa okupazionalak eta enplegurako programa bereziak, baita bitartekaritza ere.</p> <p>1.000 bezero publiko eta pribatu baino gehiago ditu bezero-zorroan. Era guztietako sektoreetan dago. Hona hemen batzuk: zuzeneko marketina, lorezaintza, automozioa, ekipamendu elektrikoak, energia berriztagarriak eta laguntza-zerbitzuak.</p>	

Industria-ibilbidea 2


MATRICI	 MATRICI
Ugaldeguren II industrialdea. – 14IV partzela – 48170 Zamudio	
www.matrici.com	
Lan Kooperatiba	
<p>MATRICIk, 50 urtetik gorako esperientzia eta ezagutza izanik, irtenbide globalak eta neurrikoak eskaintzen ditu, nazioarte-mailan automobilgintzako sektorearentzat karrozerien osagaietarako tresnak sortzeko eta egiteko.</p> <p>Aluminioa eskaerarik handieneko materialetako bat da egun bere sektorean, alde batetik, automobilgintzak gero eta konpromiso handiagoa duelako ingurumenarekin, eta, beste batetik, etengabeko aurrerapenak egin dituelako segurtasuna maximizatzeko. MATRICIk mota askotako piezetan duen esperientziari esker, berme egokiekin erantzun diezaike hain zorrotza den sektore horren beharrei, bai kalitatean, bai epeetan. Horretarako, ingeniari-tza sendoa, ondo finkatutako eta berariazko fabrikazio-prozesuak eta material horietako espezialistak dituenak ditu oinarri.</p> <p>Gainera, altzairugintzako enpresa nagusiekin lankidetzan aritzen da, etorkizuneko materialen portaera eta joerak aztertuz, eta konformagarritasunari eta karakterizazioari buruzko ezagutza sortuz, biharko erronkei aurre egiteko prest egoteko. Askotariko ekimenei ekin die zenbait eragileekin (unibertsitateekin, zentro teknologikoekin eta OEMekin, besteak beste), eta elkarrekin garatzeko proiektuetan parte hartzen du eragile horiekin.</p>	

IZAR CUTTING TOOLS, SAL	
Boroa enpresa-parkea 2B2 – 48340 Amorebieta-Etxano	
www.izartool.com	
Lan Sozietatea	
<p>IZAR CUTTING TOOLS enpresak industrian erabiltzeko ebaketa-erreminten alorreko konponbideak eskaintzen ditu. Barne-merkatuan, ekoizle nagusia da ebaketa-erreminten eremuko konponbideetan. Europako HSSzko eta metal gogorreko barauts- eta fresa-fabrikatzaile garrantzitsuenetakoa da, eta munduko herrialde industrializatu guztietan egoteko egiten dugu lan.</p> <p>Lan-sozietate gisa, hazkunde iraunkorra bideratzen saiatzen da, giza garapenaren eta enpresa-garapenaren arteko oreka bilatuz, horixe baita bere benetako izateko arrazoia.</p> <p>Gizarte-erantzukizuna ezaugarri duen enpresa da IZAR, eta bere borondatez ahalegintzen da gizarte- eta ingurumen-ardurak merkataritza-eragiketetan eta harremanetan barneratzen. 2006an, Enpresen Gizarte Erantzukizunaren Bizkaia Foroak Konpromiso Diploma eman zion IZARri, esparru horretan puntako euskal enpresetako bat dela adieraziz. 2016an, Lantegi Batuak erakundeak diploma bat eman zion, Lagundutako Enplegurako Lanerako Programaren bidez, ezgaitasun intelektuala duten pertsonen lan-merkatu arruntean sartzen laguntzeagatik.</p>	

<p>KL KATEALEGAIA</p>	
<p>www.grupokl.com</p>	
<p>Enplegurako Zentro Berezia; Lan Sozietatea</p>	
<p>KL katealegaia irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta gizarte- eta lan-bazterketa jasateko arriskuan dauden ezgaituentzat enplegu-aukerak sortzea eta mantentzea du helburu.</p> <p>KL katealegaiak gizarte-ekonomiako izaera bikoitza du, enplegurako zentro berezia izateaz gain, ezgaitasuna duten langileen jabetzako ekimena baita (lan-sozietatearen partizipazioen % 70 haien esku dago). Gainerako partizipazioak Gipuzkoako Foru Aldundiaren, ONCE Fundazioaren eta Gureak Taldearen artean banatzen dira.</p> <p>KL katealegaiaren jarduera industria-multzoak industrializatzea, muntatzea, egitea eta kontrolatzea da, hainbat sektore jorratuz: besteak beste, automobilgintza, energia, elektronika, irisgarritasuna, jasogailuak eta ekipamendu-ondasunak. KL katealegaia industria-kolaboratzaile integrala da, eta hainbat prozesu egiten ditu, hala nola, muntaketa elektromekanikoak, motorren eta sorgailuen bobinen fabrikazioa, galdaragintza-prozesuak, askotariko mekanizazioak, zirkuitu elektronikoen manufaktura, tanpografia eta serigrafia industrialak, ikuskapen bisuala eta kalitate-kontrola, eta zerbitzu logistiko osagarriak.</p> <p>KL katealegaiak 12 industria-instalazio ditu Gipuzkoako eskualde guztietan banatuta. Haietan, 925 pertsonak egiten dute lan, eta % 95ek ezgaitasunen bat dute (intelektuala, buruko gaixotasuna, ezgaitasun fisikoa eta zentzumen-ezgaitasuna).</p>	


Ekimen publikoko laneratze-ibilbidea

KOOPERA GIZARTE SAREA- Koopera Reusing Centre	 <small>INNOVACIÓN SOCIAL Y AMBIENTAL</small>
Derio Bidea 57 - 48100 Mungia	
www.koopera.org	
Lan Kooperatiba; Gizarteratzea; Ekonomia Solidarioa	
<p>KOOPERA Gizarte Sarea Caritasek bultzatutako bigarren mailako kooperatiba da, eta, bertan, gizarte-ekimeneko kooperatibek eta laneratze-enpresek hartzen dute parte. Gizarte-bazterketako egoeran dauden edo egon daitezkeen pertsonak gizarteratzea eta laneratzea du helburu. Horretarako, ingurumeneko, berrerabilerako, birziklapeneko, kontsumo iraunkorreko, prestakuntzako eta jendearentzako arreta-jarduerak egiten ditu, bai eta helburu hori lortzen lagundu dezaketen beste jarduera batzuk ere.</p> <p>KOOPERA Reusing Center arropa, oinetako, liburu, jostailu eta etxetresna elektrikoek kudeaketa automatizaturako zentroa da, objektuak modu automatizatuan berrerabiltzeko aukera ematen duena. Izan ere, herritarrek hondakin berreskuragarriak botatzeko edukiontzietan utzitako objektuak era automatizatuan kudeatzen dituen Estatuko lehen instalazioa da. Bere 4.500 metro karratuko azalera, objektu horien balio-bizitza luzatzen laguntzen du.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Berrerabilera prestatzeko lantegia —dagokionean Koopera Stores-ekin (Fernández del Campo 16, Bilbo) batera—, kontsumo iraunkorra sustatzeko eta laneratze-ibilbideak sustatzeko. - Koopera Gizarte Sarearen elkar-lankidetzako proiektua. Gizarte-ekimeneko kooperatibek eta laneratze-enpresek hartzen dute parte. - Lankidetzak Bilboko Udalarekin eta beste udalerrri batzuetako udalekin, berrerabilerarako eta beste jarduera batzuetarako edukiontzien bidez. 	


ERAGINTZA FUNDAZIOA	
Iruña 17, Deustu behea. Bilbo	
www.eragintzafundazioa.eus	
Fundazioa; Buru-gaixotasuna duten pertsonen gizarteratzeko eta laneratze erakundea; Irabazi-asmorik gabea	
<p>Eragintza Fundazioa 1991n sortu zuten BBK-k, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Confebask-ek Bizkaian buruko gaixotasuna duten pertsonen enplegu-beharrei erantzuteko.</p> <p>27 urte igaro dira buruko gaixotasunaren arloko erakunde aitzindari eta espezifiko hau sortu zenetik, baina, zoritxarrez, oraindik ere beharrezkoa da sorreran ezarritako helburu horiekin jarraitzea; izan ere, kolektibo horren langabezia-tasa % 44,7koa (ODISMET, 2014) da, eta are gehiago, kontuan hartzen baldin badugu OMEren arabera, munduko populazioaren % 25ek bizitzan zehar buruko asaldura motaren bat izango duela (OMS, 2001b).</p> <p>Bizi Kalitate eta Parte Hartze Eredua eta Lagundutako Enpleguaren Eredua dira pertsonen gizarteratzean babesteko oinarriak; eredu horien arabera, pertsonen beren erabakiak hartzeko ahalmena dute lan-merkatuan txertatzeko eta gizartean modu autonomoan eta parte-hartzailean bizitzeko.</p> <p>Gure lankidetzak publiko-pribatuko ereduak lan arloko prestakuntzako eta orientazioko zerbitzu eta baliabideak garatzen ditu Bilboko egoitzan, lau zentro okupazionaletan eta Enplegurako Zentro</p>	


Berezian (Lavanindu SL). Betiere, gaixotasun mentala duten pertsonak kontratatze eta enplegua mantentzeko dituzten beharretarako laguntza eskaintzen diegu pertsonari eta enpresei. Gainera, gaixotasunaren fase goiztiarretan dauden gazteei zuzendutako programa espezifikoak, zahartze aktiboari buruzkoak, emakumeei zuzendutakoak eta abarrak ditugu.

Ezin dugu ahaztu gaixotasun mentalarekin lotutako estigmaren aurka oro har gizartea eta eragile sozio-ekonomikoak sentsibilizatzeko ezarrita dugun helburua. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zentro laguntzailea gara, sarean lan egiten dugu beste erakunde batzuekin batera eta pertsonetan oinarritutako erakundea izaten saiatzen gara; hau da, irekia, berritzailea, elkarlanean aritzen dena, bikaintasun profesionalean, zerbitzuetan eta kudeaketa etikoan hazteko gai dena.

FEKOOR	
Blas de Otero 63 - 48014 Bilbo	
www.fekoor.com	
<p>Gutxitasun fisikoa edota organikoa duten pertsonen elkarte</p> <p>FEKOOR irabazi-asmorik gabeko erakundea da, erabilgarritasun publikoa aitortua duena, eta ezgaitasun fisikoa edota organikoa duten pertsonen Bizkaiko elkarteek osatzen dute. 1979an sortu zen, elkarte guztien lana koordinatzeko, ezgaitasun fisikoa edota organikoa duten pertsonak gizarteratze aldera, gizarteko eremu guztietan.</p> <p>FEKOOR elkarteak ETXEGOKI kudeatzen du, Bizkaiko Foru Aldundiak Bilbon ezgaitasun fisikoa duten pertsonentzat sortutako apartamentu-sarea. Berrikuntza sozialeko eta teknologikoko proiektua da dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako laguntza-sisteman.</p> <p>Kudeaketa-eredua eta pertsonari eskaintzen dien zerbitzua autonomia pertsonalaren sustapenean oinarritzen ditu, laguntza-sistema malgu eta pertsonalizatuaren bidez, pertsonak euren bizitza kudeatzeko gaitasun handiagoa lor dezaten.</p> <p>2015ean, proiektu berritzaile horrek Design For All Foundation erakundearen Nazioarteko Praktika Onenaren saria eskuratu zuen, esparru, produktu eta zerbitzuen kategorian. Aipatutako fundazioak proiektuaren diseinua, ikuspegia eta lan-metodologia azpimarratu zituen, bizi-kalitatea hobetzeko eta balioak (esate baterako, gizarteratzea, herritarren partaidetza eta garapen soziala) sustatzeko bide eredugarriak direla nabarmenduz.</p>	

Gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbidea


PEÑASCAL SOZIJETATE KOOPRATIBOA	 <i>Hezi Landuz. Aprende trabajando.</i>
Bilbao-Galdakao errepidea 10 - 48004 Bilbo	
www.grupopenascal.com	
Lan Kooperatiba; Gizarteratze Enpresa; Ekonomia Solidarioa	
<p>PEÑASCAL gizarte-ekimeneko kooperatiba da, irabazi-asmorik gabekoa eta erabilgarritasun publikoa aitortua duena. Bilbon sortu zen 1986an, eta arrazoi pertsonal, akademiko edo sozialen ondorioz bazterketa-egoeran dauden edo egon daitezkeen pertsonak gizarteratzea du helburu.</p> <p>Gizarte-egoerarik ahulenean dauden pertsonak gizarteratzea eta laneratzeari sustatzen du, lanbide-heziketaren eta oinarriko prestakuntzaren bitartez. Gizarteratzeko ibilbide pertsonalizatua egiten du, gizarteratzea ahalbidetzeko, desberdintasun-egoerak gaindituz eta pertsonaren autonomia indartuz.</p> <p>PEÑASCAL kooperatibak lan-merkatu errealerari hurbildu nahi ditu bere ibilbideak, lana aurkitzeko aukera emate aldera. Horretarako, inguruko enprekin lankidetzari estuan jarduteaz eta ekintzailatza-prozesuak babesteaz gain, laneratzeari sustatzen ditu zenbait lanbide-sektoretan; horri esker, bazterketa-arriskuan dauden edo lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonak aukera bat izaten dute. Gaur egun, 9 laneratzeari enpresa daude abian.</p>	


SARTU	
La Laguna 5 – 48003 Bilbo	
www.sartu.org	
Lan Kooperatiba; Gizarteratze Enpresa; Ekonomia Solidarioa	
<p>SARTU FEDERAZIOA irabazi-asmorik gabeko lau erakunde pribatuk sortu dute. Gizarteratzeritza arloan dihardu, marjinazioari eta gizarte-bazterketari aurre egiteko asmoz. 1988an martxan hasi zenetik, gizarte-babeserako zerbitzu komunitarioen sareko beste zerbitzu publiko bat da; sare horren osagarri izan nahi du, eta laguntza eman, elkarlana eta lankidetzari bultzatzeko nahiak eraginda. Federazioan, Sartu Araba (Gasteiz), Sartu Zabaltzen (Durango), Sartu Gaztaroa Sozietate Kooperatiboa (Bilbo) eta Sartu Erroak (Donostia) daude.</p> <p>Bere helburua pertsonen gizarteratzen laguntzea da, beharrezko aldaketak sustatuz bai gizarteratu nahi duten pertsonengan, bai gizartean, komunitate integratzaileak sortzeko. Gizarteratzea, beraien aburuz, aldaketa dakarren prozesua da, eta eragina du gizarte-bazterketan edo gizarte-desabantailan dagoen pertsonaren bizitzan, baztertuta geratu den pertsonaren gizarte-taldea osatzen duen giza taldean, eta, batez ere, bi alderdien arteko harremanetan. Ikuspegi hori aintzat hartuta, gizarteratzea bi aldagai nagusitan oinarritzen dela uste dute: autonomia pertsonalean eta parte-hartze sozialean.</p> <p>Pertsonen lana lortzeko aukera emateko, lan-bitartekaritza eskaintzen duten enplegu-zentroak izateaz gain, laneratzeari enprek dituzte zenbait sektoretan: garbiketari, gizarte- eta komunitate-animazioan...</p>	


BBK BILBAO GOOD Hostel	BBKBilbaoGoodHostel
Miraflores Etorbidea 16, 48004 Bilbo	
www.bkbilbaogoodhostel.com	
Enplegurako Zentro Berezia	
<p>BBKBilbaoGoodHostel, BBK-k eta Lantegi Batuak Fundazioak garatutako proiektua gazteentzako hiri-aterpetxea da, guztiz irisgarria. Ehun ohe ditu, eta honako hau du helburu nagusia: ezgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea sustatzea.</p> <p>Lantegi Batuak erakundearentzat zerbitzu-sektorean dibertsifikatzeko beste aurrerapauso bat da; gaur egun, sektore hori Euskadiko BPGaren % 5 da. Ikusgaitasun handiko lanak dira. Laburbilduz, turismoak ezgaitasuna duten pertsonentzat ere enplegu-aukerak sor ditzake, eta prestakuntzarako eta gizarteratzeko tresna izan daiteke, baita ostalaritzan ere.</p> <p>Hostel berritzaile hori aitzindaria da Europako turismo egokituan. Orain arte, turismo-mota horri ez zaio erantzun handirik eman Bilbon.</p>	


Adinekoentzako laguntza- eta zaintza-ibilbidea (Silver Economy)

GRUPO SERVICIOS SOCIALES INTEGRADOS	
Simon Bolivar 28 – 48013 Bilbo	
www.grupossi.es	
Lan Kooperatiba; Ekonomia Solidarioa	
<p>Grupo Servicios Sociales Integrados 30 urtetik gorako esperientzia duen talde kooperatiboa da, gizarte-ekimeneko eta onura publikoko enpresak barne hartzen dituen, eta profesionalen eta kudeatzaileen osatua. Euskadin gizarte-egoera ahulean dauden edo mendekotasuna duten pertsonen gizarte-premiei erantzun integrala ematea du helburu.</p> <p>S.S.I. kooperatibak zenbait lan-arlotan trebatutako eta espezializatutako talde profesionala du. Hona hemen arloak: adinekoak komunitate-esparruan zaintzea, batez ere etxean, eta gizarte-egoera ahulean dauden pertsonak zaintzea. Gainera, zahartzearen arloan espezializatutako I+G+B unitate bat du, baita ezagutza kudeatzeko zentro bat ere, adinekoen arretari eta zainketei lotutako lanbide berriak eta lanbide horien gaitasunak eta, era berean, zerbitzu eta programa berriak diseinatzeko.</p>	

AUZOLAGUN	
www.auzolahun.com www.ausolan.com	
Lan Kooperatiba	
<p>AUZO LAGUN 1968an sortutako kooperatiba da. Emakumeek sortua eta emakumez osatua, catering-zerbitzua eskaintzeko. Esperientzia aitzindaria, berritzailea eta arriskutsua izan zen, baina, harrezkero, hobetzeko eta zerbitzua bikaintasunez emateko espirituari eutsi dio. Gaur egun, ia 6.000 gizon eta emakume daude lanean, gauden lekuan gaudela etxean bezala jan dezagun.</p> <p>Azken 50 urteotan, hazi eta hazi egin da, eta AUSOLAN eratu du. Gaur egun, adituak dira catering- eta garbiketa-zerbitzuak, taldeentzako zerbitzuak eta zaharren egoitzak kudeatzen (hala nola Algortako Sofia Barat egoitza).</p> <p>AUSOLAN gizarte- eta enpresa-proiektu bat da. Kooperatiba-balioak oinarri hartuta, bere kideen garapena eta partaidetza bultzatzen ditu, ilusioa eta konpromisoa sortuz. Enpresa gisa bere etorkizuna bermatzeko beharrezkoak diren emaitzak lortzea eta ingurunean ongizatea handitzen laguntzea du helburu.</p>	

BIZITZEN FUNDAZIOA	
Enekuri etorbidea 5 - 48014 Bilbo	
www.bizitzen.org	
Lan Kooperatiba; Gizarteratze Enpresa; Ekonomia Solidarioa	
<p>BIZITZENen helburua pertsonen eta haien ingurunearen ongizatea bultzatzea da, gizarte-zerbitzuen alorrean ekintzak burutuz, bizi-kalitatea hobetze aldera. Proiektuak hainbat jarduketa-esparrutan gauzatzen dira, taldearen eta hautemandako premien arabera.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Adinekoak. Zahartze aktiboa sustatzeko ekintzak autonomia duten pertsonentzat, eta bizi-kalitatea hobetzeko ekintzak mendekotasuna duten pertsonentzat. • Senideak eta zaintzaileak. Prestakuntza, ongizate emozionala eta zaintzari lotutako beste alderdi batzuk lantzen dira. Halaber, profesionalentzako proiektuak ere garatzen dituzte. • Aholkularitza. Adinekoen bizi-kalitatea hobetzen laguntzen duten ekimenak. <p>I+G+Bko proiektuak.</p>	


GESTIÓN DE SERVICIOS RESIDENCIALES	
Enekuri etorbidea 5 - 48014 Bilbo	
www.gsr.coop	
Lan Kooperatiba	
<p>GSR gizarte-oinarriko enpresa-proiektua da, Mondragon Korporazioaren baitakoa, adinekoen gizarte- eta osasun-zerbitzuak kudeatzen dituena. Bere helburu nagusia laguntza-beharrak dituzten adinekoen bizi-kalitatea hobetzea da. Horretarako, beharrezko baliabideak sustatu eta kudeatzen ditu erakunde publikoekin eta pribatuekin elkarlanean.</p> <p>GSR kooperatibak erreferentziazkoa izan nahi du EAEn, Errioxan, Nafarroan eta Kantabrian gizarte- eta osasun-zerbitzuen alorrean, eta bereizgarri duen jokabidearengatik ezaguna izan, enpresa-proiektua osatzen duten pertsonen inplikazioan eta artatzen dituen adinekoekiko konpromisoan oinarritzen baita.</p> <p>GSRren oinarritzko balioak honako hauek dira: Eskuzabaltasuna, Apaltasuna eta Errespetua.</p>	

ZAINZALAN	
Enekuri etorbidea 5 - 48014 Bilbo	
koopera.org/zaintzalan	
Lan Kooperatiba; Gizarteratze Enpresa; Ekonomia Solidarioa	
<p>Caritasek bultzatuta 2010ean sortutako gizarte-ekimeneko kooperatiba da ZAINZALAN. Bere helburua da gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzat enplegua sortzea eta zaintza-sektoreko lan-baldintzak duintzea. Batik bat pertsonen zaintzaren sektorean dago espezializatuta, eta arreta pertsonalizatu eta integraleko zerbitzuak ematen ditu, pertsonen alderdi fisikoan, sozialean eta afektiboan hobekuntza eta ongizatea lortzeko. ZAINZALAN Koopera Sarearen barruan dago.</p>	

BBF- Bilbao Berrikuntza Faktoria- Mondragon Unibertsitatea bultzatutako Ekintzailera sozialerako Gunea

BBF- BILBAO BERRIKUNTZA FAKTORIA	 <p>Bilbao Berrikuntza Faktoria Innovation Factory</p>
Uribitarte 6 - 48001 Bilbao	
www.bbfaktoria.com	
Berrikuntza eta Ekintzailerarako Ekosistema	
<p>Bilbao Berrikuntza Faktoria (BBF) ikasketari, berrikuntzari eta ekintzailerari lotutako proiektu aitzindaria da, Bilbon kokatua eta MONDRAGON UNIBERTSITATEAK eta Grupo inicit sustatua eta kudeatua, Bilboko Udalaren laguntzarekin. Proiektua oinarritzen den eredua hiru mailak ditu: berrikuntza- eta ekintzailera-zentro aurreratu bat, unibertsitate bat eta enpresa berritzaileen gunea bat. Hiru mailek sistema integratua osatzen dute, helburu, estrategia eta ekintza komunak dituztelarik. Esparru berean eta era integralean, unibertsitate-prestakuntza eta enpresa-ekimen berritzaileak sustatzen dituzten pertsonen komunitatea hartzen ditu barne. Horrenbestez, pertsona horien arteko ikasketa, sormena eta elkarlana berez garatzeko beharrezkoak diren baldintzak sortzen ditu.</p> <p>Gaur egun, BBF komunitate bat da, non 300 pertsona baino gehiago daude. Bertan 11 enpresa berritzaile; 50 ekintzailek baino gehiagok sustatutako 30 proiektu, enpresa bihurtzeko fasean; eta 150 unibertsitate-ikasle, beren prestakuntza osatzen elkarrekin daude.</p>	

Arrasate-Mondragon: MONDRAGONEKO ibilbide kooperatiboa eta Jose Maria Arizmendiarrietaren irudia

<p>ARRASATE-MONDRAGON</p> <p>https://www.arrasate.eus/eu</p> <p>www.mondragon-corporation.com</p>	 <p>ARRASATEKO UDALA AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN</p>
<p>MONDRAGONEKO ibilbide kooperatiboa eta Jose Maria Arizmendiarrietaren irudia</p> <p>Bisita hau Arrasateko udaletxeak bultzatzen du esperientzia kooperatiboarekin lotuta dauden tokiko eragileekin batera, MONDRAGON Korporazioa barne. Bisitaren programazioa 3 zatitan banatzen da:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Harrera Kulturete 60´. <ul style="list-style-type: none"> • Harrerako hitzaldi laburra eta eguneko egitaraua aurkeztu. • MONDRAGON Korporazioko bideoaren proiektzioa. • Erakusketa, Kultureteko klaustroan, Arrasateko kooperatibismoaren esperientziari buruzkoa. 2. Bisita tematikoak (25 pertsonako lau taldetan banatuta) 90´. Oharra: Bisitari bakoitzak bisita tematiko bat hautatu behar du. <ul style="list-style-type: none"> • Bisita tematikoa 1: Fabrikak: 4 kooperatibeen proiektuak ezagutzea <ul style="list-style-type: none"> ○ Fagor Arrasate ○ Fagor Elektronika ○ Ikerlan- Zentro Teknologikoa ○ Emun • Bisita tematikoa 2: Herria /kooperatibismoaren balioak/historia: <ul style="list-style-type: none"> ○ Arizmendiarrietaren figura: San Joan Bataiatzailearen eliza <ul style="list-style-type: none"> • Azalpen laburra Arizmendiarrietara Kristau Fundazioaren eskutik. • JM Arizmendiarrietaren hilobia bisitatu. ○ Erakusketa, Arrasateko metalgintzaren tradizioari buruzkoa. ○ Goiena Komunikazio Taldearen egoitzara bisita. • Bisita tematikoa 3: Hezkuntza eta kooperatibismoa. <ul style="list-style-type: none"> ○ Arizmendi ikastola. ○ Mondragon Unibertsitatea. ○ Arizmendiarrietaren Lagunen Elkarte (ALE) • Bisita tematikoa 4. Ekonomia Solidarioa¹ <ul style="list-style-type: none"> ○ Bisita Ekocenter (Emaus). ○ Bisita GUREAK inklusiorako enpresa taldea. ○ Bisita Caritasen zentro okupazionala. 3. Bisita gidatua herrian zehar /eta denbora librea erdigunean 60´. <ul style="list-style-type: none"> • Bisita gidatu bat herritik zehar, kooperatibismoa ardatz hartuta. • Arrasateko erdiguneko kaleetatik buelta bat. 	

¹ Kontuan edukita denbora tarte batzuk beharko direla leku bakoitzera iristeko, eta distantziagatik Kataidera ezinbestean autobusean joan behar direla, talde hau ez da itzuliko Kulturatera; Gureakeko zentroa bisitatu ondoren, autobusean joango dira Kataidera, eta han, Caritaseko zentro okupazionala bisitatzeko gain, lunch bat eskainiko die Caritasen. Bilbora itzultzeko autobusak han bertan jasoko ditu, Kataiden.

KIDEAK

Euskadi, auzolana, bien común



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS



KONFEKOOP

Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa
Confederación de Cooperativas de Euskadi



ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea
red de economía alternativa y solidaria



EHLABE

Inclusión sociolaboral de personas con discapacidad
Euskal Herriko Lan Babestuaren Elkarte



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

asle



Asociación de Empresas
de Inserción del País Vasco
Gizarteratzeko eta Laneratzeko
Euskadiko Enpresen Elkarte